

Bidez-Bide

Etxaide'tar Yon'ek euskerara emana

ITZAURREA

Errikuskin eder bati buruz gelditu; bidaziakin mintzatu; bidertzetik loreak yaso; bide bazterrean iturritik edan; nai alderuntz eta nai lekuraño yo; iñori galdetu gabe etxerantz biurtu; bakarribil-keta... gizonari gelditzen zaizkion egizko atsegiñik bakanetakoa da.

Yoera ederra bakarribiltze auxe. Ibili... asi ibiltzen. Obe baka-
rrik lagunduta baño. Ibiltzeko ezpaita taldea osatu bearrik. Aski da nor bere buruarekin. Esaterako, ez iñoren zai egon, zai egon-
nian aldi zoragarria galtzen baita. Eta batez ere, iñorengandik ezer irixteko amets ergela aldebateratu.

Alabearrik bizitzera egokitu zaigun aldi geikor baño tamalgarri au, ibiltze bakarti ta gogalkorrentzat egokia deritzat.

Aldi batzutan, gizartekoitasun gaikiñak alkarkizun txerakorren alde daragite: adiskidetasunarentzat bereziki egindako garaiak. Bes-tetzutan berriz, bizigiro otz, urgoi, ta gizartegaitzat nausitzen dira, —izate giro batzutan beñepein eta euren artean dipint nire burua— eta bakartasunera yo dagite. Nik egizko atsegiña artu diot bakar-
ibiltzeari. Agian, bein baño geiago albotik igaro zatzaizkit berebil bikain batean. Ni, erretenera baztertu bide natzaizute. Gero, bideari yarraiko natzaio, bakarrik yarra eta yarra... Yainkoa'k nai arte.

Atalak alkarren yarraiki ikusirik, iñork pentsa ba-leza liburu au —uste burugabe oni liburu ba-deritzaioke—, xede yakin bati buruz idatzi dutala, ez dago zuzen. Bere orrialdeak zuzenburu gabe ida-tziak daude, ibillaldi bakarti, adiskide-min arteko elealdi, gomuta-ki, oroipen edeskiz mamitua.

Iñori ba-leritzaio nere buruaz geiegi mintzo naizela norbaitek lénki esana dasaioket: iñor ezpaitut nere burua bezin aukeran...

Bakarrizketak tontor batean

Bearreko zaigu ateratzea, adiskide: "Soin" senideak ere atsedean bear baitu. Eguna ditzirakor dago, aizea garden. Egoaizea dugu, gure errikuskiñaren edergarririk iaioena. Mendi ibillaldi bat txit egoki litzaiguke, mendia soin-gogoaren zuzpergarririk arrigarriena baita. Goitiak darakuskizun ikuskiña, arañoko neke-lanaren ordaingarri litzaiguke naroki. Orra, igarotzen asi-ala gure mendien gallurraldiak azaldu. Igotzea neketsu, nork uka; baña tontorrek gogoari damaion atsedeenaren ederra! Ba-ote beste lekurik gogoa bere lokeraiz ain aske dagoenik?

Gure mendiak, urrundik alkar-aditzen dutenen adiskide leialak dira; txit maite dute alkar; ainbeste alkar maitatze orrek itxasoa ere, maitemin orri buruz, ezpetan yarri du. Egoaize aldakorra asper daneko, itxasoak bere urlañoak igorriko ditu, bein bat geiagoz euren erpiñaldeak estaliz. Ez nai ba itsasoak alkar ikusterik! Sarritan, alabaña, urlañoak gatz eta nausitasunez aztaturik mendien aldekode biurtzen dira; askotan, urlañoak ibar eta arru sakonetara arduratsu yatsi oi-dira, urrengo goizean eguzki goizaleak lenen muinkatu ditzan.

Gaur ordea, Egoaize'k Itxasoa ezindurik dauka. Osertza aratz eta garden zabaltzen zaigu Yainkoa'ren izenpeko bailitzakean.

Ez al-duzu ekarri andikuskiñik, lebarkiñik, urrerakiñik? Begi leitsuok ezin datxikigun edozer urbil eta azaldu dizaikegunik?

Gauzak obekixeago ikusteko lagun datorkigun uraxe, adiskide bikaña! Urrerakiña baño lagun obeagorik ezin bakarzalearentzat. Urrerakiña olerki usaiduna deritzat benetan, alderdi urrunak ixilpean baidizkigu urbiltzen.

Urrerakiña dut nai, yakintz-odia ingelandarrak diotenez, argi-zubilla asmaketaren aldiko gaztelarrak ziotenez. Argi-zubillak ez du edonolako lebarkiñaren erosotasunik, alabaña, urrunaldiak argi, garbi lausogabeak azaltzen dizkigu. Urrerakin zarrak bere ikuspuru laburrean koskantzaren irudi xarmangarria sortu dagi. Goethe'k oarrarazten zion Eckermann'i leiariki onekiko urrerakin batek mendirik urrunenaren urdin margoa deusezten zuela.

Ara; ontzixka ura orban beltzarantxua besterik ezta urrun aietan. Urrerakiñaren bidez bere soinkera, margo, kebide ta makillen yabe egin ziñezke. Aski da, Yauzi batez, aienatzen zaitun bide erdian yarriko baiziñakean da.

Ikusi dezagun arruaren beste aldean, zelai erdian zer dagien puntotxo beltz-antzo agertzen zaigun gizonak. Segá darabil ukaldi yarraikitán; bakarrik dago.

Segalari bakartiak nun ote gogoa? Urrutiko ontzian dioazen gizonak nora ote dioaz? Nola iritxiko ote zaiote euretan oldoztu zenuneko zure biotzeko asperen igeskor eta anaikoia?

Urrutiarrak ere guban bizi baidira. Ez gera alkarrekin, bilduak gaudenean bakarrik. Edozein gizaki ta gu, edonolako tartia izanarren, ari ikuskaitz batek lotzen gaitu. Gure barne-muñean orok bakar-irudia izanarren, iñor ez da alkarkizunik gabe. Ibilli-dabiltzan orok ezkutua eurakin daramte. Ez begira iñoiz axolakabeki. Axolakabetasuna gorrotoa baño gaiztoagoa da-izan.

Orainaldiko axolakabetasunak gizonak alkartu oi-ditu, bañan beren biotz tartea ta gorrotomiña ez da beñere orren aundia izan. Yendea alkarren urko-urkoan bizi da ta bidenabar iñolako alkarkizunik gabe. Be ontan orok ebazle nai; zuzen nairik iñork ez.

Errikuskiñaren ikasgai iraunkorra emaitz ikasgaia da. Bai esku-zabala errikuskiña! Damaigunean, errikuskiña, damaionari lotzen zaio; oroentzako ba-du, txera orotarik ere bai; gañera, gure gogoaren ikusgarri, ispillu oi-zaigu. Eta orduan ederturik itzultzen digu, txit aurkoia ta ona.

Errikuskiña, norkeri zale, aundinaikeri zale, amets nai gabe ta bidertzeko ederra ausnartuz gelditzen ez dakitenean etsai porrokatua da. Begizatzen dutelakoan gezurkeriz bakarrik ari diranen are-rioa. Errikuskiña oroena ta oroentzako da.

Errikuskiñari buruz, soilki, eskerronak eragin bear gaitu. Errikuskiña lasterkazalien etsaia da. Yosú mintzo zaigun Yerusalen'dik Yeriko'ra bitarteko apaizak, gizona bide ertzean erdi illik ikusi zun, baña "aurrera ekin zion". Orobat lebitak, zorikabea begiratu ta "aurrera yo zun". (L. D. X 31 32). Samaritarrak bakarrik errukiak erakarrita iritxi zan zauritu gaxoenganaño.

Lege apaiza ta lebita antxintxiketan zioazten; ezin beraz, urkoaren nekabide apurrenik artu. Samaritarra berriz, etzan urkoaren zorikabeak eragingaitza, bai-baizekin, noski, geldialdika bidekoa ederresten.

Izadi ederrestea biotz xaloak artu oi-duten eskerra da, berak baidira geientsutan aberats eta emakorrenak. Norkoiak, bizia darionari lokerik ez. Bidearen ederra ez du artzen ematen ez dakienak.

Utzi, barnera dakizun, begiak geldiro ase dizaizkizun.

Baña, urrutira begiraten dutela igartzen diet, txit urruti; urrutiena, sakonena. Tamal zindo baten diztiraz nabari ditut; ezin geiago atzeman. Nora begiraten dute? Ezpai gabe osertzetik oso aruntz.

Orain yabetzen zaizun oroimiña ezin asebeteko dezu iñoiz. Errikuskiñak bere aunditasunaren ezaugarritz margoztu zaitu; urrun azterkaitzak xarezen ditun estalkai bat besterik ezuala nabari dezu. Batzutan, egugiro ozkarbi ta ixilkorretan, badirudi, itzal barnerakor baten izatea dala igaroki, ta izadia aopez otoiketari.

Yon Sebasten'en iria

Gipuzkoa'n, mastiak emen urrean bakarrik izan oi-dira, itxasotik urbil, egoalderuntz begira dauden egitan. Esmeralda margodun mastiak alde batetik, eta aldeorotara zabalik dagoen neurrigabeko iñoski bidearen urdiña bestetik, bideberria, aitz-gorrian barrena tunelak egin ondoren, errira irixten da.

Itxasoari gibebez ta bide alderokalariari aurrez, bere eraikitzarik berrienak darakuski Getari'k: "Victoria" itxasontziaren ludi inguratzeari eraikitako oroigallua, pelotatokia, Udaletxea, ta Elkano'ri yasotako neurri txikiagoko beste oroigallu bat.

Arratsaldea epel dago. Pelotatokian yokoan lirainki ari dira motiko batzuk. Eguzkizale zâr batzu, enparantza esituz dagon arresian exeririk daude. Aurtalde bat, goxoki, karamelu ta litxarkeriak saltzen dituen emakume baten aldizko saltokiari atsekabeki begira dago.

Kale zuzen bat, izkillarritz ornituriko etxe zârrak saieskiz, elizaraño leunki yasten da. Ondakin batzuen irudiak ortzeak yasotzen ditu bere leio kaxkarren utsune bitartez. Kale mearrak patarran labanduz, igazpide eze ta goibelak, orok, era batez edo bestez gotar tankerako yauretze zârreraño daramate. Onek, bere uztai-zutoiaz, ugin âltsuak aitz-islegi baten gañera yaurtitako itxasontzia dirudi. Gezalak, arriaren landuketa ta apainketak ezabatu ditu, yauretzea antziñako lerdokiz igurtzirik. Arlanduzko leio biribillak, kare-orrez ta arriz estalitako obo aundiak besterik ez dira.

Bezperak aspalditxo bukatu dira. Iñor ez da elizan. Nere iritzea liteke soilki, baña yauretze utsaren ixiltasanak ez titasun sakon eta xamurra euki ba-dauka. Bakartasunean, itxaropen irudi, argiontzi

bat dar-dar ari da. In̄ar-sorta bat artez-arte igarotzen da arlaukiz esitutako goi-sollairuko leio baten barrena.

Emazteki eskuak, maigibel bakana, aldare nagusiko saiets-mallaz berritu dute. Beragan oro da zuri: oialkiak, miesak, eta Ama-Birjin baten irudia esitzen dituzten loreak. Bere arpegiaren aurtasuna, biltordearen utzune ta ille arroak areago nabarmentzen dute. Ama-Birjin au ta iru makillekiko itxasontzi bikain-bikaña, dira, noski, yau-
retxe zãrraren alaigarri bakarrak.

Saiets aldare baten gañean leiarkutxa bat dago. Ango illirudi ikuskizunak zurturik uzten zaitu. Illotz bat áztuki utzi ote dute? Txit barnemindurik obeki oartzuz illotzik ez dala nabari; Kistoa datza gorputz.

Ezer gutxik damaio tankera erdiragarria! Egizko ille galparrak arpegi ubelduaren zati bat estaliz, burko bat eta maĩndire zuri baten toleskia estalgarri beltzaren gañetik. Ez da besterik: orra oro!

Alboko aldarean, Yainkozaleak Kisto ilberri bat erdi etzanda dakuskete, betuztaipean ezpaita zutunik sartzen. Bere egille antziñar eta apalak, larrikara sortzen duen galetsiaren tankera erantsi zion. Arantz burestuna baño, Kisto orrek burdiñortz burestuna duela esan genezake.

Verhaeren beljikal olerkariak, Darío de Regeyes margolari zirrarakoia lagun egin zuen txangoaldi batean, eusko-yauretxe auetako irudiak ikusi zitun, eta Getari'koari buruz-buru, alderdi bi besterik ez dirala dio: edo-ta ler-gaizto egin, edo-ta txit zaleki otoizteko belaunikatu. Ez dirudit in̄ork parrik legikenik irudi auen aurrean: irririk deungarena ormatuko luke.

Kistar biotzaren eragitez landu zituzten ertilarien eta orain, cixarkin yarioka ta biotz eragiñik gabe santutxoak sailka egiten dituzten irudigilleen alde! Gizon aiek ertilari oies ziran noski, baña gogoz eta irudimenez yantziak zeuden eta aldi artako erritarrai bezelaxe, Kisto biotz-barnera zitzaian.

Bazter baten, zokoratutak noski, beste irudi zar batzu dagoz: Kepa deuna bat; Paul deuna bestea; igarri ezin leiokena irugarrena. Erri ontakoxe betek noizpait esana burura dakarkidate:

Ogeitamar urte oraintsu, zãrgaietan aritzen zan atzerritar bidazti bat Getari'ra iritxi zan. Onek, elizari bear-bearrekoak zitzaizkion antolaketa batzuk egitea agindu zion erretoreari. Ordañez etzuen gauz aundirik eskatzen: zoko batean autsez beterik baztertuak zeuden irudi zãr batzuk. Ontzat yo ez-eze, apaiza, zoraturik gelditu zan. Bere burua deunirudi yabe ikusi zunean, bere errira eraman zitun egiñalean...

Elizatik erten gera. In̄or ote dabil kalean? Kale aizeak ezkata usai giroa nãsiki datoz. Sapailloak legortzeko yazkiaz beterik da-

usai giroa nāsiki datoz. Sapailleak legortzeko yazkiaz beterik da-
gerz: urdin margozko mariñel yantzia geientsu. Atari batean emaku-
me bi aopekotan. Goitar leio batetik, arpegi zimur ta akitua, ba-
karzale atso bat ibildariai so dago, utsean nabarmenki begiak sista-
tuz... inoragabe.

Lurpeko igazpide batean, txabeta lodi batez itxita yaupaldegi
illun bat dago; gibelean, leiartegi oyes batek Yauna'ren Yeïstea da-
rakus. Igazpide au, oarleioz yositako antziñako babeslekuen konda-
rra da ta kaigañeko ikustegui batera darama. Arresi-aurrean, arran-
tzale batzuek besoak gurutzatuta, begi lillurakorraz itxasora so daude.
Ezin igarri nork dagien so: gizonak itxasoari, ala itxasoak gizonai.

Lurrean itxasgizonak ezin etxi dute itxasora gabe; bakartasun ur-
diñaren dei-indarrak darakarkie. Itxaşoan larri dira, lur zati baten
ikuskin yoranez. Lur pitin bat gorputzaren oñarriztat! Nekez liteke,
itxasbira luze ta larrialditsu baten ondoren, mariñelak lur irmoa za-
paltzen duenekoze zoriona! Egun batzutan zoriontsu dala derizkio,
baña aurki, arrantzale auek bezelaxe, itxasoruntz begira yarriko da
ostera.

Beste getariar bat onelaxe egon zan leku bertantxe, eunki batzuk
oraintsu. Yon Sebasten bere izenak ots aundia ekarri bearra zun.
Are aur, esertz zabalagoaren egarri zanean, egun ontziaga zutunaren
onduan ikurbidalkiña dagon leku bertara igo zan.

Orain, pike diztiradun bote beltzan sartuta, zarataka dabiltzan
aur oiek bezelaxe, bera lakoxeko lagun txikiakin, itxasturugaiak
ekingo zion lenengoz itxasarloai, orain dakustanaren antzeko txalupa
batean sartuta.

Beñola, morrosko zalarik, kai ontatik ludi zear irten zan adur bi-
lla, bere ondasun osoa zitzaion ontzixka baten buruzagi.

Bere yaioterrí itxasoko lanbropean oitutako itxasturu gaztea, li-
lluraturik utzi zun Lurrarteko itxasoaren argitaşunak.

Lurrarteko itxasoak ez bezela, Yon Sebaste'en itxasoko ugiñak
kolko zabalak ditute. Urrutitik datoz aundikiro ta nausitasunez; txit
urrutitik, (Yainkoa'k ál-daki nundik!) arkaitzetan lertu ta apař zu-
ri-arroz estali bearrez.

Beñola, eskutuz yositako itxaso ezaukabetaruntz irtetzer zegon
ontzidi baten izenpetu zan. Lurretik igesi ta yoran sutsuagoaz billatu
naiez, bost ontzitatik bat bakarrik itzuli zan iru urtez lenago atera
lekura. Yon-Sebasten zan ontzi orren agintari. Itxasoak ordea, bera
esitu zunaz apendu nai. Ba-zekien eskier, itxasturuak ostera esitu
nai izango zula ta egonarriz itxaro zun...